



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN AKTA

Batzordea: Tokiko Gobernu Batzarra

Bilera-zenbakia: 2016ICGO0010

Eguna: 2016/12/02

Ordua: 12:00 – 12:12

Tokia: Alkatetza

Bertaratuak

- | | |
|---|-----------------------|
| 1. Jesús M ^a Santos Anabitarte | EAJ-PNV |
| 2. Zorione Etxezarraga Ortuondo | EAJ-PNV |
| 3. Jon Arregui Sagües | EAJ-PNV |
| 4. Andoni Gartzia Arruabarrena | EHBILDU |
| 5. Mikel Durán Gonzalo | Euskadiko Sozialistak |

Bertaratu ez direnak

Idazkaria

- Kontxi Urdampilleta Santamaría

Aztergaiak

EGUNEKO AZTERGAIAK	Zk / N°	ORDEN DEL DIA
2016ko urriaren 19ko akta onartzea.	1	Aprobación del acta de 19 de octubre de 2016.
Tokiko Gobernu Batzordeak, urriaren 19an, Aqualdre SL-ren hirigintza-lizentziaren inguruan hartutako akordioa zuzentzea.	2	Corregir el acuerdo adoptado por la Junta de Gobierno Local, con fecha 19 de octubre, sobre la concesión de la licencia urbanística a Aqualdre SL.
H.E.A 8.2 "Agu" unitateko Urbanizatzeko Jarduketa Programa: alegazioei erantzutea eta behin betikoz onartzea.	3	Programa de Actuación Urbanizadora de la UEU 8.2 "Agu": contestación a las alegaciones y aprobación definitiva
H.I.E. 02 Ergobia gunearen 2.2. H.E.U. Herrero exekuzio unitateko birpartzelazio proiektua: alegazioei erantzutea eta behin betikoz onartzea.	4	Proyecto de Reparcelación de la U.E. 2.2 "Herrero" del A.I.U Ergobia Auzoa: contestación a las alegaciones y aprobación definitiva
Mundarro Kirol Elkartearen Kontratuaren aldaketa.	5	Mundarro Kirol Elkartearen Kontratuaren aldaketa. Modificación del contrato.
Informazio, galdera eta eskariak	6	Información, ruegos y preguntas



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

Esan-eginak eta erabakiak

1.- 2016ko urriaren 19ko aktaren onarpena.

Zorione zinegotziak adierazi du 3 gaian (euskarazko bertsioaren 3 orrialdeko 6. paragrafoan) “*liraintzen*” jartzen duela “*iraintzen*” jarri beharko lukeenean. Bestalde, adierazi du berak gertatutakoa beste modu batean idatziko lukeela, baina ez du aldatzeko eskatu.

Aktan aipatu aldaketa egin ondoren, bozkatzera ekin zaio. Alkatea eta Jon zinegotzia aurreko bileran egon ez zirenez abtenitu egin dira, eta gainerako bertaratuek alde bozkatu dute.

2.- Tokiko gobernu batzordeak, urriaren 19an, Aqualdere S.L.ren hirigintza-lizentziaren inguruan hartutako akordioa zuzentzea.

Alkateak Hirigintza batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Lehenengo atala.- 2016ko urriaren 19ko Tokiko gobernu batzordeak, a.2/VL-3 unitatean 80 etxebizitza, lokal eta garaje eraikitzeko onartutako obra-baimenaren 2. atalean (zehaztasun ekonomikoak), udalari dagokion aprobetxamenduaren zenbatekoa zuzentzea, eta testu berri honegatik ordezkatzeta.

“Udalari dagokion aprobetxamendua: 931.550€”

Bigarren atala.- Aipatu akordioaren 2. ataleko gainerako zenbatekoak eta obra-baimenaren gainerako baldintzak bere horretan uztea.

Hirugarren atala.- Erabaki honen berri obra-baimenaren sustatzaileari eta udaleko kontuhartzaileari ematea.

Andoni zinegotziak hartu du hitza eta adierazi

1.- Aprobación del acta de 19 de octubre de 2016.

La concejal Zorione comenta que en el tema 3 (6º paragrafo de la 3ª página de la versión en euskara) pone “*liraintzen*” cuando debía de poner “*iraintzen*”. Por otro lado, señala que ella hubiera redactado lo ocurrido de otra manera, pero no pide que se modifique.

Tras realizar en el acta la mencionada modificación se procede a su votación. El alcalde y el concejal Jon se abstienen dado que no estuvieron presentes en la anterior sesión, y el resto de presentes votan a favor.

2.- Corregir el acuerdo adoptado por la Junta de gobierno local, con fecha 19 de octubre, sobre la concepción de la licencia urbanística a Aqualdre, S.L.

El alcalde ha presentado, para su aprobación, el siguiente dictamen de la comisión de urbanismo:

Primero.- Modificar el aprovechamiento urbanístico del apartado 2 (condiciones económicas) de la licencia de obras otorgada por la Junta de Gobierno Local de 19 de octubre de 2016, para la construcción de 80 viviendas, locales y garajes en la parcela a.2/VL-3, y sustituirlo por el siguiente:

“Aprovechamiento urbanístico: 931.550€.

Segundo.- Mantener el resto de importes establecidos en el apartado 2; así como el resto de condicionantes de la licencia de obras.

Tercero.- Notificar el presente acuerdo al promotor de las viviendas y al interventor municipal.

Toma la palabra el concejal Andoni y señala que



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

du hirigintza batzordean abstenitu egin zirela eta oraingoan ere horrela egingo duela, baina ulertzen duela baimena aldatu beharra.

Jarraian **irizpena** bozkatzera ekin zaio, eta **onartu egin da** aldeko 4 botoekin (EAJ-PNVko 3 kideena eta Euskadiko Sozialistarena) eta abstentzio batekin (EHBilduko kidearena)

3.- HEA 8.2 “Agui” Unitateko Urbanizatzeo Jarduketa Programa: alegazioei erantzutea eta behin betikoz onartzea.

Alkateak Hirigintza batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Lehena.- Joseba Maidagan Lazkanok, EKOGI-ICOVIren izenean eta hura ordezkatzuz, egindako alegazioa baiestea.

Bigarrena.- Jardun Urbanizatzaileari buruzko Programa behin betiko onartzea, betiere honako baldintza hauek betetzen badira:

- Urbanizatzeo Jarduketa Programaren hasierako onespen-akordioan eskatzen diren zehaztapenak eta 12x24m-ko zolatutako zona txertatzeko egindako alegazioa baiestetik eratorritako zehaztapena Dokumentuan sartzea, Testu Bategina aurkeztuz.
- Kargen zenbatekoaren % 1 (892.497,06€) entregatzea abal gisa.

Hirugarrena.- Behin betiko onespenari buruzko erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, eta, horrekin batera, edukien laburpen bat. Laburpenean honako hauek jasoko dira, gutxienez: eremuaren identifikazioa, sailkapena eta kalifikazioa; eremuari esleitutako hirigintza-erakigarritasuna; jarduketa-sistema; urbanizazio-obren eta, hala badagokio, eraikuntza-obren aurrekontua eta egikaritzearen programazioa.

Laugarrena.- Hartutako erabakiaren berri ematea EKOGI-GICOVI SL sozietateari.

– al igual que en la comisión de urbanismo – se va a abstener, si bien entiende que hay que modificar la licencia.

A continuación se procede a votar el **dictamen**, el cual **se aprueba** con 4 votos (3 de los miembros de EAJ-PNV y de Socialistas Vascos) y 1 abstención (EHBildu).

3.- Programa de Actuación Urbanizadora de la UEU 8.2 “Agui”: contestación a las alegaciones y aprobación definitiva.

El alcalde ha presentado, para su aprobación, el siguiente dictamen de la comisión de urbanismo:

Primero.- Estimar la alegación formulada por Joseba Maidagan Lazkano, actuando en nombre y representación de EKOGI-ICOVI.

Segundo.- Aprobar definitivamente el Programa de Actuación Urbanizadora, condiciona al cumplimiento de los siguientes requisitos:

- Presentar un Texto Refundido que incluya las determinaciones exigidas en el acuerdo de aprobación inicial del PAU y la derivada de la estimación de la alegación consistente en incorporar la zona pavimentada de 12x24m.
- Entregar el aval de 1% de la cuantía de las cargas de urbanización, que asciende a 892.497,06€.

Tercero.- Publicar el acuerdo de aprobación definitiva en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, con acompañamiento de un extracto de sus contenidos, entre los que se incluirá, como mínimo, la identificación del ámbito, su clasificación y calificación, la edificabilidad urbanística atribuida al ámbito, el sistema de actuación, el presupuesto y la programación de la ejecución de las obras de urbanización, y, en su caso, de edificación.

Cuarto.- Notificar el acuerdo adoptado a EKOGI-GICOVI S.L.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

Behin betikotzat onartzeko eskatzen zen Testu bateragina juridikoki eta teknikoki baliozkotzen duten txostenak aurkeztu dira irizpidearekin batera, eta jakinarazi da abala jarri dela.

Junto con el dictamen se presentan los informes jurídico y técnico sobre validación del Texto Refundido exigido para la aprobación definitiva, y se notifica que se ha entregado el aval.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta **ahoz batez akordio hau onartu da.**

A continuación se ha procedido a votar, y se ha **aprobado por unanimidad.**

Lehena.- Joseba Maidagan Lazkanok, EKOGI-ICOVIren izenean eta hura ordezkatzuz, egindako alegazioa baiestea.

Primero.- Estimar la alegación formulada por Joseba Maidagan Lazkano, actuando en nombre y representación de EKOGI-ICOVI.

Bigarrena.- Jardun Urbanizatzaileari buruzko Programa behin betiko onartzea.

Segundo.- Aprobar definitivamente el Programa de Actuación Urbanizadora.

Hirugarrena.- Behin betiko onespenerari buruzko erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, eta, horrekin batera, edukien laburpen bat. Laburpenean honako hauek jasoko dira, gutxienez: eremuaren identifikazioa, sailkapena eta kalifikazioa; eremuari esleitutako hirigintza-erakigarritasuna; jarduketa-sistema; urbanizazio-obren eta, hala badagokio, eraikuntza-obren aurrekontua eta egikaritzearen programazioa.

Tercero.- Publicar el acuerdo de aprobación definitiva en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, con acompañamiento de un extracto de sus contenidos, entre los que se incluirá, como mínimo, la identificación del ámbito, su clasificación y calificación, la edificabilidad urbanística atribuida al ámbito, el sistema de actuación, el presupuesto y la programación de la ejecución de las obras de urbanización, y, en su caso, de edificación.

Laugarrena.- Hartutako erabakiaren berri ematea EKOGI-GICOVI SL sozietateari.

Cuarto.- Notificar el acuerdo adoptado a EKOGI-GICOVI S.L.

4.- HIE 02 Ergobia gunearen 2.2 HEU Herrero exekuzio unitateko birpartzelazio proiektua: alegazioei erantzutea eta behin betikoz onartzea.

4.- Proyecto de Reparcelación de la UE 2.2 “Herrero” del AIU Ergobia Auzoa: contestación a las alegaciones y aprobación definitiva

Alkateak Hirigintza batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

El alcalde ha presentado, para su aprobación, el siguiente dictamen de la comisión de urbanismo:

Lehena.- José María UBARRETXENA ARIZTIZABALEk egindako alegazioa partzialki onartzea eta haren eraikuntza-eskubideen kalte-ordainaren zenbatekoa 97.461,18 € izan dadin ezartzea, udal-arkitektoaren azaroaren 22ko txostenean zehaztutakoaren arabera.

Primero.- Estimar parcialmente la alegación formulada por José María UBARRETXENA ARIZTIZABAL, estableciendo la cuantía indemnizatoria de sus derechos edificatorios en 97.461,18 €, en virtud de lo determinado en el informe del Arquitecto municipal de fecha 22 de noviembre.

Segundo.- Condicionar la aprobación



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

Bigarrena.- Birpartzelazio Proiektua behin betiko onartzea, betiere honako baldintza hauek betetzen badira:

1.- Zuzendutako Birpartzelazio Proiektu bat aurkeztea Astigarragako Udalean. Proiektu horretan eguneratu egin beharko dira lagapenaren % 15eko eta Ubarretxena jaunari dagokion kalte-ordainaren balioespenak, proiektuan definituta dauden azaleretan dauden kontraesanak zuzendu egin beharko dira eta hirigintza-plangintzan azaltzen diren etara egokitu beharko dira eta hirigintza-legeriari egindako aipamenak eguneratu egin beharko dira.

2.- Zuzendutako birpartzelazio-proiektua teknikoki eta juridikoki baliozkotu beharko dute udal-teknikariek.

Hirugarrena.- Udalaren %15^a, 136.160,72€koa da.

.- Bizitegiarako:

$VRS = 2.200 \text{ €/m}^2 / 1,40 - 1.217,23 \text{ €/m}^2 = 1.571,43 - 1.217,23 = 354,20 \text{ €/m}^2$.

Aurreikusita dauden 2.350 m²etarako beraz:

$VRS = 2.350 \text{ m}^2 \times 0,15 \times 354,20 \text{ €/m}^2 = 124.855,50 \text{ €}$.

.- Garajeetarako:

$VRS = 600 \text{ €/m}^2 / 1,40 - 353,80 \text{ €/m}^2 = 428,57 - 353,80 = 74,77 \text{ €/m}^2$.

Aurreikusita dauden 1.008 m²etarako beraz:

$VRS = 1.008 \text{ m}^2 \times 0,15 \times 74,77 \text{ €/m}^2 = 11.305,22 \text{ €}$.

Guztira beraz: $124.855,50 + 11.305,22 = 136.160,72 \text{ €}$.

Laugarrena.- José María Ubarretxena Ariztizabal jaunari eta itun-batzarrari erabakiaren berri ematea.

Andoni zinegotziak hitza hartu eta galdetu du Birpartzelazio proiektu zuzendua aurkeztu den. Zorione zinegotziak argitu dio baietz, eta azaroaren 29ko baliozkotze txosten juridikoan aipatzen dela. Gaineratu du, baliozkotze txosten tekniko ere badagoela.

definitiva del Proyecto de Reparcelación al cumplimiento de los siguientes requisitos:

1.- Se presente en el Ayuntamiento de Astigarraga, un Proyecto de Reparcelación **corregido** donde se actualicen las valoraciones del 15% de cesión y de la indemnización que corresponde al Señor Ubarretxena, se corrijan las contradicciones existentes en las superficies definidas en el proyecto y se adecuen a las reflejadas en el planeamiento urbanístico y se actualice las menciones realizadas a la Legislación urbanística.

2.- El proyecto de reparcelación corregido deberá ser validado técnica y jurídicamente por los técnicos municipales.

Tercero.- El 15% del Ayuntamiento es 136.160,72€.

.- Para las viviendas:

$VRS = 2.200 \text{ €/m}^2 / 1,40 - 1.217,23 \text{ €/m}^2 = 1.571,43 - 1.217,23 = 354,20 \text{ €/m}^2$.

Por consiguiente, para los 2.350 m² previstos:

$VRS = 2.350 \text{ m}^2 \times 0,15 \times 354,20 \text{ €/m}^2 = 124.855,50 \text{ €}$.

.- Para los garajes:

$VRS = 600 \text{ €/m}^2 / 1,40 - 353,80 \text{ €/m}^2 = 428,57 - 353,80 = 74,77 \text{ €/m}^2$.

Por consiguiente, para los 1.008 m² previstos:

$VRS = 1.008 \text{ m}^2 \times 0,15 \times 74,77 \text{ €/m}^2 = 11.305,22 \text{ €}$.

Por tanto, en total: $124.855,50 + 11.305,22 = 136.160,72 \text{ €}$.

Cuarto.- Notificar el acuerdo a José María Ubarretxena Ariztizabal y a la Junta de Concertación.

Toma la palabra el concejal Andoni y pregunta si ha presentado el proyecto corregido. La concejal Zorione le aclara que si, y que ya se ha reflejado en el informe jurídico de validación de 29 de noviembre. Y añade que también hay un informe técnico de validación.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta **aho batez akordio hau onartu da.**

Lehena.- José María UBARRETXENA ARIZTIZABALEk egindako alegazioa partzialki onartzea eta haren eraikuntza-eskubideen kalte-ordainaren zenbatekoa 97.461,18 € izan dadin ezartzea, udal-arkitektoaren azaroaren 22ko txostenean zehaztutakoaren arabera.

Bigarrena.- Birpartzelazio Proiektua behin betiko onartzea.

Hirugarrena.- Udalaren %15^a, 136.160,72€koa da.

- Bizitegietarako:

VRS = 2.200 €/m² /1,40 – 1.217,23 €/m² = 1.571,43 – 1.217,23 = 354,20 €/m².

Aurreikusita dauden 2.350 m²etarako beraz:

VRS = 2.350 m² x 0,15 x 354,20 €/m² = 124.855,50 €.

- Garajeetarako:

VRS = 600 €/m² /1,40 – 353,80 €/m² = 428,57 – 353,80 = 74,77 €/m².

Aurreikusita dauden 1.008 m²etarako beraz:

VRS = 1.008 m² x 0,15 x 74,77 €/m² = 11.305,22 €.

Guztira beraz: 124.855,50 + 11.305,22 = 136.160,72 €.

Laugarrena.- José María Ubarretxena Ariztizabal jaunari eta itun-batzarrari erabakiaren berri ematea.

5.- Mundarro Kirol Elkarteak. Kontratuaren aldaketa.

Alkateak Kirolak, gardentasuna eta parte-hartze batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Lehena.- Mundarro kirol elkarteak egindako alegazioa partzialki onartzea, eta ondorioz, ikastaroetan hizkuntza-irizpide hauek

A continuación se ha procedido a votar, y se ha **aprobado por unanimidad el siguiente acuerdo:**

Primero.- Estimar parcialmente la alegación formulada por José María UBARRETXENA ARIZTIZABAL, estableciendo la cuantía indemnizatoria de sus derechos edificatorios en 97.461,18 €, en virtud de lo determinado en el informe del Arquitecto municipal de fecha 22 de noviembre.

Segundo.- Aprobar definitivamente el Proyecto de Reparcelación.

Tercero.- El 15% del Ayuntamiento es 136.160,72€.

- Para las viviendas:

VRS = 2.200 €/m² /1,40 – 1.217,23 €/m² = 1.571,43 – 1.217,23 = 354,20 €/m².

Por consiguiente, para los 2.350 m² previstos:

VRS = 2.350 m² x 0,15 x 354,20 €/m² = 124.855,50 €.

- Para los garajes:

VRS = 600 €/m² /1,40 – 353,80 €/m² = 428,57 – 353,80 = 74,77 €/m².

Por consiguiente, para los 1.008 m² previstos:

VRS = 1.008 m² x 0,15 x 74,77 €/m² = 11.305,22 €.

Por tanto, en total: 124.855,50 + 11.305,22 = 136.160,72 €.

Cuarto.- Notificar el acuerdo a José María Ubarretxena Ariztizabal y a la Junta de Concertación.

5.- Mundarro Kirol Elkarteak. Modificación del contrato.

El alcalde ha presentado, para su aprobación, el siguiente dictamen de la comisión de deportes, transparencia y participación:

Primera.- Estimar parcialmente la alegación presentada por Mundarro kirol elkarteak, de manera que los criterios lingüísticos a seguir



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

jarraitzea:

- Ikastaroetako matrikulazio orrietan hizkuntz gaitasunari buruzko galdera egitea.
- Ikastaroaren eskaintza egiterakoan, ikastaro bakoitza zein hizkuntzetan emango den zehaztea. Ikastaro guztiak bi hizkuntz ofizialetan aurrera eramateko aukera bermatzea.
- Euskarazko ikastaroentzat euskaraz emateko gaitasuna duten begiraleak kontratatzea.

Bigarrena.- Kirol-zerbitzuak (kiroldegia, futbol-zelaia eta pilotalekua) kudeatzeko Mundarro Kirol Elkartearekin sinatutako kontratua aldatzea, jarraian adierazitako hizkuntz-irizpideak sartzeko:

- Ahozko komunikazioan, zuzenean zein telefono bidezkoan, lehen hitza euskara erabiltzea.
- Bazkide eta herritarrei oro har, harreman hizkuntzaz galdetu eta horren arabera bideratzea idatzizko komunikazioa.
- Udalarekiko harremana euskaraz bideratzea.
- Ikastaroetako matrikulazio orrietan hizkuntz gaitasunari buruzko galdera egitea.
- Ikastaroaren eskaintza egiterakoan, ikastaro bakoitza zein hizkuntzetan emango den zehaztea. Ikastaro guztiak bi hizkuntz ofizialetan aurrera eramateko aukera bermatuko da.
- Euskarazko ikastaroentzat euskaraz emateko gaitasuna duten begiraleak kontratatuko dira.
- Udalak euskararen arloan hartzen dituen erabakiak betetzea, bestiek beste 2014-06-26ko Osoko Bilkuran onartutako hizkuntz irizpideak.

el los cursillos serán los siguientes:

- Preguntar, a través de las hojas de inscripción a los cursos, sobre el nivel de conocimiento del euskera.
- A la hora de ofertar los cursos se indicará el idioma en el que se va a impartir. Se garantizará que todos los cursos se impartan en los dos idiomas oficiales.
- Para los cursillos en euskera, se contratará personal capacitado para impartirlo en dicho idioma.

Segundo.- Modificar el convenio suscrito con Mundarro Kirol elkarte para la gestión de los servicios deportivos (polideportivo, campo de fútbol y frontón), para incluir los siguientes criterios lingüísticos:

- En la comunicación verbal, bien directamente o bien por teléfono, utilizar el euskera a la hora de iniciar la conversación.
- Preguntar sobre la lengua en la que quieren comunicarse, tanto a abonados como a los ciudadanos en general, y en función de ello, encauzar la comunicación escrita.
- Notificar que la comunicación con el Ayuntamiento debe ser en euskera.
- Preguntar, a través de las hojas de inscripción a los cursos, sobre el nivel de conocimiento del euskera.
- A la hora de ofertar los cursos se indicará el idioma en el que se va a impartir. Se garantizará que todos los cursos se impartan en los dos idiomas oficiales.
- Para los cursillos en euskera, se contratará personal capacitado para impartirlo en dicho idioma.
- Cumplir con las decisiones adoptadas por el Ayuntamiento en relación con el euskera, entre otros, los criterios lingüísticos aprobados por el pleno del Ayuntamiento con fecha 26-06-2014.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

Zorione zinegotziak hartu du hitza eta azaldu, euskara irizpideak txertatzearen inguruan alegazioak aurkeztu zirela, baina Mundarro eta euskara teknikariarekin bilera egin ondoren, akordio batetara iritsi, eta alegazioa partzialki onartu dela.

Bestalde, galdetu dio udal-idazkariari Mudarro Keri akordioaren berri eman behar zaio, eta horrek azaldu dio kontratu berri bat sinatu behar dela.

Jarraian **irizpena** bozkatzera ekin zaio, eta **aho batez onartu da**.

Toma la palabra la concejal Zorione y explica que se presentaron alegaciones a la incorporación de los criterios lingüísticos, pero que tras reunirse con el Mundarro y la técnico de euskara, se ha llegado a un acuerdo y estimado parcialmente la alegación.

Por otro lado, le pregunta a la secretaria municipal si hay que notificar el acuerdo, a lo ésta le responde que hay que firmar un nuevo contrato.

A continuación se ha procedido a votar el dictamen, el cual **se ha aprobado por unanimidad**.

6.- Informazio, galdera eta eskariak

a.- Mugikortasun eta berdintasun batzordea.

Andoni zinegotziak adierazi du azken osoko bilkuran Ramon zinegotziak komentatu zuela, gobernu taldeak uzten baldin bazion, batzorderako deialdia egingo zuela, baina ez dela egin.

Zorione zinegotziak erantzun dio mapa morearen gaia zehaztean egingo dela.

b.- Obra eta zerbitzuetako batzordea.

Alkateak adierazi du abenduaren 15 aldera obra eta zerbitzu batzordea egingo dela, bidegorriaren obra kitapena onartu behar delako, aldundiaren laguntza galdu nahi ez bada.

Andoni zinegotziak galdetu dio osoko bilkurak ez ote duen onartu behar, eta alkateak azaldu dio laguntzaren kitapena egiteko aski dela batzordeak onartu izana, eta hile bukaeran ez ohiko osoko bilkura egin behar denez, orduan eramango dela gaia.

Andoni zinegotziak galdetu du batzorderako obra-ziurtagiria egongo den, eta Jon

6.- Información, ruegos y preguntas

b.- Comisión de movilidad e igualdad.

El concejal Andoni señala que en el último pleno el concejal Ramon comentó que, si el equipo de gobierno le dejaba, iba a convocar la comisión, pero que no se ha hecho.

La concejal Zorione le responde que se convocará cuanto se concreto el tema “mapa morea”

b.- Comisión de obras y servicios

El alcalde señala que hacia el 15 de diciembre se va a convocar una comisión para aprobar la liquidación de las obras del bidegorri, para no perder la subvención de la Diputación.

El concejal Andoni le pregunta si la liquidación no la tiene que aprobar el pleno, a lo que el alcalde le responde que para justificar la subvención es suficiente que lo aprueba la comisión, y que como a finales de mes habrá que hacer un pleno extraordinario, se tratará el tema allí.

El concejal Andoni pregunta si va a estar el certificado de obra para la comisión, a lo que el



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

zinegotziak azaldu dio obra atzeratu egin den arren, bukatzeaz dagoela eta ziurtagiria eduki bezain pronto bidaliko zaiela, baina batzordea egitearen premia dagoela, laguntza galdu nahi ez bada.

concejal Jon le responde que las obras se han retrasado y que están a punto de terminar, y que se les enviará el certificado tan pronto como llegue, pero que hay urgencia en hacer la comisión sino se quiere perder la subvención.

Bilera amaitutzat eman dugu eta, eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, agiri hau egiten dut.

Astigarraga, 2016ko abenduaren 2an

Kontxi Urdampilleta Santamaría
Ordezko idazkaria